Ongi etorri Astronomine proiektura!

Astronomiarekiko interesa areagotzeko Europak finantzatutako proiektua da Astronomine Lehen Hezkuntzako ikasleen eta irakasleen artean.

ZATOZ GURE WEBGUNERA!

GURE PROIEKTUARI BURUZ

Arazoa

Astronomia oso gutxitan irakasten da herrialde gehienetan; izan ere, hainbat herrialdek ez dute kontuan hartzen haien ikasketa-planean.

Oro har, 10-14 urte tarteko gazteen artean astronomiari buruzko ikuspegi mugatua dago, nahiz eta oinarrizko kontzeptuak lantzen diren: eguna eta gaua, urtaroak, ilargi-faseak, orbita planetarioak, eta planetei eta izarrei buruzko informazio orokorra. Astronminek astronomiaren edukietan dagoen hutsunea betetzen lagundu nahi du Europako herrialdeetan, baliabide berritzaileak garatuta.

Ideia

Astronomiaren eremuak zeregin erabakigarria du teknologiaren, ekonomiaren eta gizartearen aurrerapenean; izan ere, tresnak, prozesuak eta softwarea garatzen dira arlo honetan.

Bestalde, astronomiako ekarpenek hainbat eremutan eragiten dute, hala nola energia berriztagarrietan, energia-iturrietan, asmakizun medikoetan eta irudi-sentsoreetan.
Astronominek gazteek beraien STEAM konpetentziak garatzeko astronomiak duen potentziala nabarmendu nahi du, gazteek izaten duten astronomiarekiko interesaz baliatuta.

Helburua

AstronMineren helburu nagusia eskoletan astronomia sustatzea da, jokoan oinarritutako ikaskuntzaren bidez. STEAM esparruetan hezkuntzaren kalitatea hobetzea eta irakasleen gaitasun digitalak hobetzea ere helburu du.

Proiektuak bi emaitza zehatz sortuko ditu:

Irakurri hemen!

Irakaslearen eskuliburua

Astronomiaren gaia ikasgeletan lantzen laguntzen duen eskuliburua.

Astrononine mundua, Minecraft-en

Minecraft-erako prestatutako mundu honek hainbat astronomia-gai aurkeztuko dizkie ikasleei.

Gehiago jakin nahi duzu?

Egon gurekin konektatuta, eta izan gure komunitatearen parte. Jarraitu guri sare sozialetan! Iker dezagun elkarrekin unibertsoa!

Ez ahaztu gure buletinean harpidetzea! Mesedez, bete formularioa gure webgunean:

HARPIDETU!

BAZKIDEAK

Sare sozialak

Jarraitu gu hemen:

Bisitatu gure webgunea

http://astronomine.erasmusplus.website/

Co-funded by the European Union

Astronomine 2022-1-IE01-KA220-SCH-000089856

Europar Batasunak finantzatua. Hala ere, adierazitako iritziak eta iritziak autoreenak baino ez dira, eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunekoak edo Hezkuntza eta Kulturako Agentzia Beteerazlearenak. Ez Europar Batasuna, ez EACEA ezin dira horien erantzuletzat hartu.